

EUSKO LEGEBILTZARRA. Urrian sortu zen batzordea, eta hilabete honetan jarriko da abian

Autogobernuaren batzordeko agerraldiak eskatu dituzte talde guztiek

Batzordeak jorratu beharko lituzkeen lan ildoak ere proposatu dituzte oposizioko alderdiek

Erredakzioa | GASTEIZ

Eusko Legebiltzarreko autogobernuaren batzorde berezian ekimenak aurkezteko epea atzo bukatu zen, eta hala egin zuten talde guztiek. Gainera, Batasunak, PPK eta PSE-EEk, agerraldien zerrendak aurkezteaz gain, batzordeak jorratu beharko lituzkeen lan ildoak ere azaldu zuten. Iazko urriaren 25ean autogobernuari buruz egindako osoko bilkuran sortu zen batzorde berezi hori, eta hil honen bigarren hamabostaldian bilduko da, baina oraindik ez dute zehaztu noiz.

Lan ildoak eta agerraldiak zehaztu ditu oposizioak

Batasunak lau lerro nagusi finkatu ditu, autogobernuaren batzordean landu daitezkeen: Autonomi Estatutuaren sorrera, haren garapena, Euskal Herriak dituen erronkak, eta erronka horiei aurre egiteko Euskal Herriak behar duen esparru juridikoa.

Eztabaida ildo horiek garatu ahal izateko, agerraldiak egitea proposatu du ezker abertzaleak. Hala, Estatutuaren azterketa egiteko, Francisco Letamendia *Ortzi*, Emilio Gebara eta Txomin Ziluaga proposatu ditu. Estatutuaren garapenari buruzko balantzea egiteko, besteak beste, Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia, Rafa Diez LABeko idazkari nagusia eta Juan Karlos Ioldi preso ohia. Euskal Herria-



MIREN SAEZ
Autogobernuaren batzordeko presidente Elixabete Piñol, Joseba Egibar eta Jose Antonio Rubalkabarekin.

ren erronkaz aritzeko, Loren Arkotxa Udalbiltzako lehendakaria eta Xabier Larralde Udalbiltzako kidea proposatu dituzte.

PSE-EEk ere batzordean jorrazteko lan proposamenak aurkeztu zituen atzo. Haren ustetan, batzordeak honako lan ildo hauek jorratu beharko lituzke: batetik, Estatutuaren egungo egoera eta garatzeko dituen ahalmenak aztertzea; bestetik, Estatutuaren barne garapena ikustea; eta, azkenik, Estatutuak dituen ahalmenak jorraztea. Ildo horien arabera, sozialistek,

besteak beste, hauen agerraldiak eskatu dituzte: Jaurlaritzako lehendakariorde Idoia Zenarruzabeitiarena; Enrique Villar Espainiak EAEn duen ordezkariarena; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatu nagusienak; eta UGT, CCOO, LAB eta ELAko idazkari nagusienak.

Bestalde, PPK atzo proposatu zuen batzordeak «pluraltasun handiagoa eta ikuspuntu politiko eta sozial handiagoa» izan behar duela, eztabaida «abertzaletasunean soilik ez oinarritzeko». Hori dela eta, besteak

beste, EAEko hiru ahaldun nagusiak eta hiru hiriburuetakoko alkateak, Confebask enpresaburu elkarteko presidentea eta EAEko Estatutua eta Kontzertua negoziatu zutenak agertzeko eskatu du PPK.

Jaurlaritzaren osatzen duten taldeek ere euren zerrenda aurkeztu zuten. Besteak beste, EHUKo katedradunak, Xabier Arzalluz EBBko presidentea, Jon Jauregi buru den Udalbiltzako zuzendaritza kontseilua eta Abertzaleen Batasuna proposatu dituzte EAJ, EA eta IUk.

AURREKONTUAK

Jaurlaritzan eta diputazioetan EAJk jarrera ezberdina duela esan du Jauregik

Erredakzioa | BILBO

Ramon Jauregi PSE-EEko kudeaketa batzordeko presidentea uste du «helburu politikoak» dituztela Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundietan EAJ-EAk sozialistekin aurrekontuak onartzeko eginko akordioek.

Era berean, EAJren barruan «borondate politiko ezberdinak» daudela adierazi zuen ETBri eskainitako elkarrizketan. Hala, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldun nagusiek, Josu Bergarak eta Roman Sudupek, Ibarretxe lehendakariarekin bat ez datozen asmoak dituzte, haren hitzetan.

PPk, bestalde, kupoa-aren gainean «jarrera argitzeko» eskatu dio Bergarari. Leopoldo Barreda bozeramaileak adierazi duenez, «Bergarak gai izan behar du, herritarren interesak jokoan dauden honetan, Ibarretxeri aurre egiteko, egoerak hala eskatzen duelako».

Erantsi du ez dela zilegi zergak ordaintzeko eskatu eta ahaldun nagusia «legea hausten» aritzea.

Jaurlaritzaren aurrekontuei dagokienez, Rodolfo Ares PSE-EEko parlamentariak «ezinezkotza» jo du negoziatorako aukera. Oposizioa aintzat hartu gabe onartu nahi ditu Jaurlaritzak aurrekontuak, Aresen ustez.

EUSKOBAROMETROA. Juan Jose Ibarretxeri eman diote puntuaziorik onena

Autodeterminazioaren gaineko akordio politikoa nahi dute EAEko biztanleen bi herenek

Maidar del Olmo | BILBO

Autodeterminazio eskubidearen gaineko akordio politiko baten alde agertu dira EAEko hiru biztanletik bi, Eusko Barometroaren arabera.

EHUKo Zientzia Politikoa-ko ikerketa taldeak joan den azaroan etxez etxe EAEko 1.200 biztanleri egindako galdeketa emaitzak aurkeztu zituen atzo.

Francisco Jose Llera irakasleak gidatutako ikerketak berretsi egin du EAEko herritar gehienak autodeterminazioa-

ren aldekoa direla, kopuru horrek behera egin badu ere.

Negoziarioaren aldekoak, %70

Bestalde, biztanleen %70ek uste dute Madrilgo gobernuak eta ETAK negoziatu egin beharko luketela, eta %14k, berriz, ezetz diote.

Aldekoen artean, erdian iriziz mahaian eseri aurretik ETAK lehenik eta behin armak utzi beharko ditu; gainontzeko %50ek ezetz uste dute.

Halaber, biztanleen erdiek ez dakite Jaurlaritzaren nortzuek osatzen duten. Javier Balza Herri-

zaingo sailburua da, Ibarretxe lehendakariaren atzetik, guztien artean ezagunena.

Politikariei emandako puntuazioan, Ibarretxek lortu du herritarren aldetik onespene handiena: hamarretik 7,5 puntu.

Aipatzekoa da, bestetik, herritarrek puntuazio hobea eman diotela Jose Luis Rodriguez Zapatero PSOEko idazkari nagusiari (6,9), Nicolas Redondo PSE-EEko idazkari nagusi ohiri bano (5,8). Galdeketa egin zenean Redondok ez zuen oraindik dimisioa eman.



ERREKTORGEOA
RECTORADO

[25 urtetik gorakoak Unibertsitatean sartzeko azterketak]

Unibertsitate honek EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBEN DEIALDIA argitaratu ematea erabaki du, guztiek haren berri izan dezaten, eta 94/10/10 "EHAAA"n argitaratutako arautegia erregulatzaila betetzeko.

Probak horiek egiteko matrikula 2002ko urtarrilaren 14 eta 15ean egingo da.

TOKIAK:

- Arabako Campuseko Errektoreordetza. Izardui Komandantea, 2 - 01006 Gasteiz. Tlf.: 945014301.

- Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza. Akademi Gestiorako bulegoa. Ignacio Maria Barriola eraikina, (Ikasgelategia) Elhuyar plaza, 1. - 20018 Donostia. Tlf.: 943018141.

- Ikasleen Atala. Sarbiderako bulegoa. I. ikasgelategia, beheko solairua. Sarriena auzoa z/g. - 48940 Leioa (Bizkaia) Tlf.: 946015555

Azterketa: 2002eko otsailaren 16a, 9.30etan:

ARABAN: Filologi, Geografi eta H. Fak. Unibertsitateko pasalekua, 5. 01006 Gasteiz.

GIPUZKOAN: Ignacio M^a Barriola eraikina. (Ikasgelategia), Elhuyar plaza, 1. 20018 Donostia.

BIZKAIA: Industria eta Telekomunikazio Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. Urkixo zumardia, z/g. 48013 Bilbao.

Leioan, 2002ko urtarrilaren 12a.
Akademi Antolakuntzako Errektoreordea,
Enrique Amezua San Martín.